

Elikagaien Segurtasuna da hirugarren ingurumen-lehentasuna XXI. menderako, Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren arabera ([UNEP, 2012](#)). Duela gutxi argitaratu duten txosten batean ohartarazten da beharrezkoa dela hainbat erronkari aurre egitea; izan ere, horiei aurrea hartu ezean, hainbat ondorio sortu daitezke, besteak beste, gosea eta malnutrizioa areagotzea, itsasoko ekosistemak agortzea eta gaixotasun zoonotikoen zein elikagaien beste kutsadura batzuen arriskua handitzea.

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA DA INGURUMEN AGENDAREN LEHENTASUNETAKO BAT

Nazio Batuen Ingurumen Programak (UNEP) mende honetako ingurumen-lehentasunen zerrenda argitaratu du, "21 gai 21. menderako" ([UNEP, 2012](#)) izeneko txostenean. Elikagaien Segurtasuna hirugarren lehentasuna da. Honako gai hauek ere ageri dira zerrenda horretan: elikagaien ekoizpena, ura, lurra, biodibertsitatea, klima-aldaketa, energia, teknologia eta hondakinak.

Lehentasunen zerrenda hori 2010ean egin zuten kontsulta-prozeduraren emaitza da. Prozedura horretan egon da sartuta UNEPeko Aurreikuspen Panela. Mundu osoko 20 zientzialari ospetsuk osatzen dute panel hori, eta guztira 400 adituri baino gehiagori egin zitzaizen kontsulta. Helburua zen nazioarteko adostasuna lortzea, ingurumen arloko gai emergenteak lehenesteko; izan ere, horiek oso garrantzitsuak izango dira ingurumen-politikak garatzeko eta datozen urteetarako zientzia-arloko lehentasunak ezartzeko.

ERRONKA BERRIAK ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN

Nazio Batuen Munduko Erakundearen arabera ([ONU, 2008](#)), 2050. urtean baliteke 9 milioi biztanle egotea mundu osoan, gehienak garatutako herrialdeetan. Ondorioz, elikagaien eskaerak gora egingo du nabarmen, eta elikagaien ekoizpenak egokitu egin beharko du eskaera horretara. Bestalde, Elikagaien Segurtasuna (elikagaien kaltegabatasuna gisa hartuta) aintzat hartzeko alderdi garrantzitsua da, eta kezka sortzen du kontsumitzaileen zein elikagaien ekoizleen artean. Osasunerako Mundu Erakundearen txosten baten arabera ([OME, 2007](#)) urtero gutxi gorabehera populazioaren % 30ek pairatzen dute elikagaiek eragindako gaixotasunen bat.

Elikagaiak eskuratu

Elikagaiak eskuratzeari dagokionez, adituek honako erronka hauek atzeman dituzte:

1. **Klima-aldaketa:** klima-aldaketaren ondorioetako batzuk dira tenperaturaren gorakada, urtaroen aldaketa edo muturreko klima-gertakizunak (lehortek edo uholdeak), eta horiek guztiek oztopatu egingo dute, gero



eta gehiago, elikagaien ekoizpena. Ildo horretan, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Panelak 2007an ohartarazi zuen zenbait herrialdek uztetan % 50era bitarteko murrizketak izango zituztela hemendik 2020. urtera, baldin eta klima-aldaketara egokitzen ez baziren ([IPCC, 2007](#)).

2. **Lurra lortzeko lehia:** hiriak zabaltzen ari dira eta lurra degradatu egiten da, batik bat, higaduragatik. Gainera, natura zaindu behar da, eta basoberritu. Horrek guztiak mugatu egiten du elikagaiak ekoizteko lurren eremua. Horri energia ekoizteko laborantzen eskumena gehitu behar zaio. Nekazaritzarako Munduko Erakundeak ([FAO, 2008](#)) zenbatetsi du bioenergia lortzeko laborantzetarako erabiltzen den azalera mundu osoa 2004. urtean 13,8 milioi hektareakoa zela, eta 2030. urtean 34,5 eta 58,5 hektarea artekoa izan litekeela.

3. **Ura eskura izatea:** ur-eskasia faktore mugatzaile argia da eta dagoeneko nekazaritza-eremu askotan atzematzen ari dira.

4. Fosforo-gabezia posibleak: adituek faktore mugatzaile emergente gisa atzeman dute; izan ere, gaur egungo nekazaritzan gero eta gehiago erabiltzen den ongaria da. Mundu osoko erreserbetan geratzen den fosforoaren bizitza erabilgarria eztabaida ugariren iturria da, [UNEP 2011](#) txostenean zehazten den bezala. Txosten horren arabera, gaur egungo ekoizpen-erritmoari eusten bazaio, fosforo-erreserbek, gehienez ere, 300 urte iraungo dute.

Elikagaien Segurtasuna

Elikagaien Segurtasunaren ikuspegiari (elikagai seguru gisa hartuta) dagokionez, adituek diote arazoa herrialde garatuetan bezain larria izan daitekeela hain garatuta ez dauden herrialdeetan. Horren adibide dugu *Escherichia coli* kutsatutako barazkien kasua. 15 pertsona hil ziren eta 1.000 pertsona baino gehiago ospitaleratu behar izan zituzten Europa osoan.

Nazio Batuen Ingurumen Programak ([UNEP 2012](#)) arlo horretan honako erronka hauek identifikatu ditu:

1. Zoonosiak: OMEk jakinarazi zuen azken bi hamarkadetan sortu diren gaixotasunen % 75 zoonosiak izan direla. Halaber, ez dugu ahaztu behar basa-animaliek zoonosien transmisioan izaten duten garrantzia; izan ere, produktu horiek merkaturatzea izan liteke zoonosia- eta gaixotasun mota horien transferentzia-iturri nagusietako bat.

2. Elikagaien kutsadura: egoera batzuetan (adibidez, beroketaren ondorioz) elikagaien kutsadura maizago gerta daiteke eta gaixotasunak azkarrago hedatu daitezke.

JARDUTEKO AUKERAK

Badira zenbait aukera mundu-mailan Elikagaien Segurtasuna hobetzeko. Nazio Batuen Idazkaritzak Jarduteko Ikuspegi Orokorren zirriborroa ([ONU, 2008](#)) egin du. Bi helburu ditu:

1. Gosez dauden herritarren berehalako premiak asetzea. Horretarako, honako hau proposatzen dute: larrialdiko elikagai-laguntza eskaintzea, nutrizio eta segurtasunean esku-hartzea, nekazari txikien ekoizpena sustatzea,

merkataritza eta zerga-politikak doitzea eta abar.

2. Herritar zaugarrienen erresistentzia lortzea: gizarte-arloko babeserako sistemak hedatzea, ekoizle txikientzat elikagai gehiago izatea, nazioarteko merkatuak hobetzea eta bio-erregaiari buruzko nazioarteko kontseilua garatzea.

Nekazaritza iraunkorra sustatzea da Elikagaien Segurtasuna hobetzeko beste aukera bideragarri bat, [UNEP 2010](#) txostenak dioenaren arabera. Horrek hainbat ekintza gauzatzea dakar: ura zaintzea, arrain-populazioa babestea, landatzeko lurra zentzuz intentsifikatzea eta landareak eraginkorki biltzea sustatzea, paisaia degradatuak lehengoratzeko, hondakinak murriztea, uzta ondorengo galerak murriztea eta horretarako produktuak eraldatzea, eta abar.

Halaber, mundu-mailan elikagaien segurtasuna bermatzeari begira, arreta handiagoa eskaini behar zaie gaixotasun zoonotikoei. Horretarako, oinarritzkoa da **alerta goiztiarren sistemak** abiaraztea, elikagaien kutsadura-kasuetan erantzun azkarra eman ahal izango baita.

Bestalde, ekoizpen garbiko teknikak orokorrean aplikatu ahal izango lirarteke elikagaiak prozesatzeko industrian, "abeletxetik mahaira" segurtasuna bermatzeko.

JARDUN EZEAN, GERTA DAITEZKEEN ONDORIOAK

Nazio Batuen Ingurumen Programak ([UNEP, 2012](#)) azpimarratu egiten du ezinbestekoa dela Elikagaien Segurtasunaren arloko erronka berriei aurre egitea. Halaber, Elikagaien Segurtasuna hobetzeko jardun ezean, datozen 10-20 urteetan gerta daitezkeen ondorioak zehazten ditu.

Ondorio nagusia izango litzateke gosearen eta malnutrizioaren aurrean zaugarrienak eta sentiberenak diren herritarren kopuruak gora egingo lukeela, eta horrek immigrazioa areagotzea ekarriko luke.

Bestalde, itsasoko ekosistemak agortu egingo lirateke, gehiegizko arrantzaren eta kutsaduraren ondorioz. Eta, gainera, handitu egingo litzateke gaixotasun zoonotikoen zein elikagaien beste kutsadura batzuen arriskua.

BIBLIOGRAFIA

- [FAO, 2008](#). El estado mundial de la agricultura y la alimentación. Biocombustibles: riesgos, perspectivas y oportunidades.
- [IPCC, 2007](#). Cambio climático. Informe de síntesis.
- [OMS, 2007](#). Food safety and Foodborne illness.
- [ONU, 2008](#). Marco amplio para la acción.
- [UNEP, 2010](#). Promoting sustainable Agriculture and Rural Development.
- [UNEP, 2011](#). Phosphorus and food production. In: UNEP Year Book 2011 pp. 35-46.
- [UNEP, 2012](#). 21 Issues for the 21st century. Results of the UNEP foresight Process on Emerging Environmental Issues.